

Lanpostu Eskaintza Publikoa Haur Eskolak Partzuergoan

Aurreko *q s z Naz* batean aurreratu genizuen bezala Haur Eskoletako Partzuergoan LEP deialdia argitaratu da hilaren 14an. Deialdi honetan 500 lanpostu eskainiko dira (horietatik 15 urritasuna duten langileen txandan). Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 3an bukatuko da . Eskerak Internet bidez egin beharko dira Haur Eskolak Partzuergoko Web orrian: www.haurreskolak.net. Deialdi honetan parte hartzeko titulu baldintzak:

- Haur Hezkuntzako maisu-maistra titulua edo Haur Hezkuntzako goi mailako Teknikari titulua.
- Hezkuntzako 2.Hizkuntza eskakizuna, EGA edo baliokidea.

LABen gaiteria prestatzen ari da eta maiatzaren 19tik ekainaren 6ra LABeko egoitzara deitu beharko duzue enkargatzeko.

Informazio gehiagorako www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/haur Web orrira jo dezakezue edo bestela ere sail sindikalaren honako telefonoetara jo:

Bilbon, 94 470 69 24; Donostian, 943 45 85 26; Gasteizen, 945 25 84 04

LABeko 7. Biltzarra

Maiatzaren 22 eta 23an LABek bere 7. Biltzar Nagusia burutuko du Barakaldoko BECen. Ostirala 23an, goizeko 11etatik aurrera ekitaldi batekin ospatuko da biltzarraren amaiera BECen bertan, beraz aukera duzuenoi bertan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

Otsaileko Greba dela eta Bigarren Errekurtsoa

Otsailaren 14an greba burutu zenutenok aukera duzue orain bigarren errekurtsoa egiteko. Oraingoan Hezkuntza Sailari bideratuko diogun errekurtsoa gure web orrian aurki dezakezue inprimatzeko (www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia) eta jakin ezazue bidaltzeko urte beteko epea dagoela (2009.eko otsailaren 14ra arte). Zalantzaren bat izanez gero, sindikatura deitu.

Afiliatuen Asanbladak

Hilabete honetan egindako mobilizazioen ostean, sindikatuok bilduko gara berriro egoera aztertzeko eta eman beharreko pausuak zehazteko. Honen berri emateko eta zuen ikuspuntua eta iritziak jasotzeko asmoz asanbladak egitea ezinbestekoa ikusten dugu.

Donostian: maiatzaren 26an, astelehena, arratsaldeko 18etan, LABeko egoitzan

Bilbon: maiatzaren 27an, asteartea, arratsaldeko 17:30etan LABeko egoitzan

Gasteizen: maiatzaren 28ean, asteazkena, arratsaldeko 17:30etan, LABeko egoitzan

- Gai-ordena:**
- Mobilizazioen balorazioa, hurrengo pausuak eta ekarpenak.
 - Lekualdatze lehiaketa - LEP. Hurrengo datak
 - Beste batzuk edo eta norberak leharkeenak

Lekualdatze Lehiaketa

Ezedentzia bereziarekin zaudeten langileoi gogorarazi nahi dizuegu zuen lanpostuak lekualdatze lehiaketarako atera direla, zuek kontuan har dezazuen honek Berritzegunearen kokapena zein herrialdekoa ere galtzea ekar lezakeela.

Goi Mailako Titulu Eskerak

Afiliatu batzuek eman diguten informazioaren arabera, Lakuak hurrengo ikasturterako beharrezkoa den titulua eskatu dio langilego osoari (finko zein ordezkoei, tituludun zein titulu ez dunei), zerrendetatik botata izateko mehatxuarekin (gogoratu titulua, osorik, aurkeztu ez duzuenek abuztuaren amaiera arteko epea duzuela).

Egoera hau argitzeko eta titulurik edo honen %100arik gabe geratu diren langileen egoerari buruz hitz egiteko sindikatuok Mahai Parekidea batzeko eskatu diogu Departamentuari eta honen erantzunaren zain gaude.

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 82, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 82	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org